

ZITZ TOOL

ZitzTool, txakurren kaka jasotzeko tresnen alokairu zerbitzua da. Herriko, hiriko, auzotako... leku estrategikoetan, parkeetan esate baterako, kutxatila batzuk kokatuko dira. Txakur kaka jasotzeko tresna egongo da bertan eta honek beharrezkoak izango dituen plastikozko poltsak ere bai.

Herritarrei eta turistei zuzendutako zerbitzu bat izango da, nahiz eta bereziki, arazo fisikoak dituzten eta adineko pertsonen bideratuta egon; hauek izango baitira behar gehien izan ditzaketenak. Herritarrek zerbitzu hau kontratatu eta tasa bat ordaintzearen truk, kutxatila erabili ahal izateko txartela jasoko dute. Horretaz gain, esan bezala, turistei ere eskainiko zaien zerbitzua da. Hauek, hoteletan, turismo bulegoetan eta beste elkarte batzuetan (printzipioz, zabor eta animaliekin erlazionatutako elkarteei) eskuratu dezakete zerbitzua, aldi jakin baterako.